

27E/2022 EBAZPENA, ekainaren 27koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez akatsak zuzentzen baitira 21E/2022 Ebazpenean. Ebazpen horren bidez, Toki entitateei euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2022ko laguntzak ematea ebatzi zen.

ERREFERENTZIA: expediente Kodea: 0011-1272-2022-000000

KUDEAKETA UNITATEA: Herritarrekiko Harremanetarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko atala
Tel.: 848 426054
Helbidea: Paulino Caballero kalea 13, 31002, Iruñea
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak ekainaren 9an emandako 21E/2022 Ebazpenaren bidez Toki entitateei euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2022ko laguntzak ematea ebatzi zen. Ebazpen horretako taulan agertzen diren entitate onuradunen artean, eta zehaztapenak jasotzen dituen eranskinean akatsa dagoela oharturik, bidezkoa da akatsa horiek zuzentzea.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak txostena aurkeztu du zuzenketa hori proposatuz.

Horiek horrela, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuak emandako eskuduntzen arabera,

EBATZI DUT:

1.- Zuzentzea 2022ko ekainaren 9ko 21E/2022 Ebazpena, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, 2022an Toki entitateei euskara erabiltzeko eta sustatzeko laguntzen deialdia ebazten duena, baita hari atxikirik doan Eranskina ere.

Entitate onaduradunen tauletan,

Honela dioen lekuan:
Ayuntamiento de Berriosuso

Honela behar du:
Ayuntamiento de Berrioplano

2.- Ebazpena Berriobeitiko Udalari jakinaraztea eta ondorengoei igortzea: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan duen Kontu-hartzailatza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Administrazio eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kontablara, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Programen Bulegora, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

3.- Ebazpen honek ez dio amaierarik ematen administrazio-bideari, eta, honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariari, hilabeteko



epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa para dezakete jurisdikzio eskudunean, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Nolanahi ere, aldez aurreko errekerimendua egin diezaioke Nafarroako Gobernuari, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epeetan.

Iruñean, 2022ko ekainaren 27an.

EUSKARABIDEA- EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA,
Mikel Arregi Pérez

